

UDALERRIKO IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO
ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN
ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

INDARREAN 2007KO URTARRILAREN 1ETIK

(2006KO AZAROAREN 13KO UDALBATZARREAN ONARTUA)

(G.A.O. 247 ZKIA-2006.12.30)

UDALERRIKO IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauko 10 eta 11 artikuluetan aurrikusitako ahalmenak erabiliz (ikus azken artikulua honen idazketa berria eman duen apirilaren 2ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea).

II. GUTXIENEN KUOTEN PONDERAZIOA

2. Artikulua

Udalerrri horretan zergapetutako ihardueretarako zerga honen Tarifetan Foru Diputazio honek ezarri dituen gutxieneko kuotak 1. ERANSKINEan azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

3. Artikulua

Udalerrriaren barnean Zerga honek zergapetutako iharduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikulua arabera gehituko kuotei 2. ERANSKINEan adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. Artikulua

Ponderazio eta gehikuntza koefizienteak eta kokapen indizea, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan hurrunez-hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuoten probintzialesi eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5. Artikulua

Aipaturiko 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten diren 2. ERANSKINEan erlazionatutako kategorien arabera sailkatzen dira.

III. TRIBUTUZKO ZERGA

6. Artikulua

Zerga honen tributuzko kuota Tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotez egongo da osatua, erantsiz koefizientea eta Ordenantza honetako 2 eta 3 artikuluen eta, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagokion indizea.

IV. GESTIO ARAUAK

7. Artikulua

1.- Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak eskuordetu ahal izango dira Gipuzkoako Foru Diputazioarengan, Udal Batzarrak aldez aurretik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian eta horretako

hitzarrena sinatuz ondorioak izan behar dituen urtearen hasiera baino lehen.

- 2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen sei hilabetearen barruan. Era berean argitaratuko da Aldizkari horretan bertan hitzarmen horien salaketa.
- 3.- Lehen zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren 1. ERANSKINeko koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak onartu zituen Udal Batzarrak, ERANSKINean esaten den egunean egindako batzarraldian, eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

ERANSKINA

Batzarraldiaren data: 2006ko azaroak 13

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra 1,370

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Kategoriak Indiz.Kod.Kaleak,plazak edo auzoak

Lehenengoa K

A

T

Bigarrena

B

A

Gainerako bideak K

A

R

Indice 1,370

3.- Martxoaren 19ko 4/2003 Arau Foralaren 3. artikuluan onetsi zen moduan, sujetu pasiboaren eragiketa bolumenaren arabera zehaztuko den ponderazio koefiziente bat aplikatuz.

Anoeta, 2006ko abenduaren 31.

O.E Alkatea,-

Idazkaria-kontuhartzailea,-